

1999ko azaroa/abendua
Altzako Herri Batasuna

ALTZA

eginez

Unidad Popular: el motor para
el cambio político y social

"Euskal Presoak Herrira"
Joseba, Altzako presoa mintzo

Gazteok eta lan baldintzak
Jarraiko kide batekin elkarrizketa

Aurrekontuak 2000



EDITORIALA

Atakan

Hau ezaguna egiten zaigu. Horra azken asteetan gutako bakoitzak ziurraski pentsatuko zuena. "Egoera berri eta ilusionante" honetan, berriro ere hasi ditugu ezagunak egiten zaizkigun gauza asko ikusten/entzuten: Estatuaren aldeko euskal militanten abriketak eta gogorak/bigunak diskurtsoa, gure "bidaiagun" diren aldeko Ppren Estatuko aurrekontuak laguntza ematea, edota Baionako hauteskundeetan eskuindar frantsesen aldeko bozka eskatzea Abertzaleen Batasuna lagundu beharrean; Diputazioetan eta Gasteizko Parlamentuak akordioetara iristeko borondate eza eta horren ondoren EAJk lantzen duen "de facto"zko errodillo politika (ETBn, Aurrekontuetan,...); Udalbiltza bezalako apostu nagusi baten inguruan erakusten ari den epelkeri eta utzikeria, Bilboko Alkateak erakusten duen bezala behin eta berriro; azken asteetan ikusten dugun eskalada dialektiko ziklikoa EAJren aldeko, gero ezertan gauzatzen ez dena. Orain dela urte bat hasitako ziklo berria errenka dabil, denok gara horren jabe, baita euskal preso politikoak ere. Urte bat pasatu denean egoera hau ireki zenetik, eta hiru urte luze pasa direnean beraien borrokan hasi zirenetik, gaur da eguna non beraien egoera ere ez den batere aldatu. Eta borrokan beste pausu bat ematea erabaki dute. Argi esan digu Kolektiboak: Prozesuak aurrera egin behar du erabakiortarenez, eta beraien parte izateko eskubide osoa dute. Beraz, kalean egon behar dute, gu guztiokin prozesu politikoa bultzatzen. Hori lortu bitartean, beraien status politikoa onartu behar da eta Euskal Herrira ekarri behar dituzte. Hona hemen borrokan zentzua, politikoa oso.

Presoen egoera eta borroka behin eta berriro errepikatzen den zerbait da. Gauzak aurrera behar bezala ez doazelaren adierazle garbia. Eta hemen ere, beste gauzetan bezala, ez du balio zezena barreratik ikustea. Ez dugu ikuste bezala geratzeko eskubiderik, gu guztiok eskuetan baitago Presoen eta Prozesuaren gain aurterapausu erabakiorrak ematea. Hor dugu erronka.

Hay que decidirse

Esta es la sensación que más de una/o habrá tenido estas semanas. Todo esto nos suena: las detenciones de militantes por parte de los estados y la vuelta al discurso de duros y blandos; las dudas y los apoyos de nuestros "compañeros de viaje" a los Presupuestos del Estado, o la petición de voto a favor de la derecha francesa en las elecciones de Baiona Este, despreciando a Abertzaleen Batasuna; la imposibilidad de cerrar acuerdos en Diputaciones; la pasividad en torno a referencias básicas como Udalbiltza...

No cabe duda de que este "nuevo ciclo" está en crisis. El propio colectivo de presos así nos lo pone de manifiesto respecto a su situación. Por ello han dado una vuelta más de tuerca a su lucha. Tienen derecho a ser considerados presas/os políticas/os, y a ser agrupados en Euskal Herria, como paso previo a su puesta en libertad. Tienen derecho a participar activamente en el proceso político. No es el momento de ver los toros desde la barrera, ni de esperar a que muera algún preso para sentir mala conciencia y empezar a movernos. Está en nuestras manos el dar la vuelta a esa situación e impulsar decididamente el proceso político.



Alfonso Castro Sarnegi

1971ko uztailearen 26an jaio zen Donostian.
1991ko abuztuaren 17an atxilotua.
8 urte kartzelan.
Centro de Cumplimiento Herrera de la Mancha
Apdo.77 13.200 Manzanares
Ciudad Real



Fernando Arburua Inarragirre

1.954ko abenduaren 23an jaioa.
1981ko urtarrilaren 28an atxilotua.
1a 18 urte kartzelan.3/4ak beteak.
Centro Penitenciario Pueto-1
Apdo.555
11500 Puerto de Santa Maria (Cádiz)



Cristina Gete Etxeberria

1970eko azaroaren 6an Donostianjaioa.
1998ko maiatzaren 3an atxilotua.
Urte bete kartzelan eta oraindik epaitu gabe.
Centro Penitenciario Alcala Mujeres.
Carretera de Meco, km 5
28800 Alcala de Henares. Madrid.



Josu Lonbide Lorente

1973ko martxoaren 9an jaioa Donostian.
1998ko maiatzaren 3an atxilotua.
Urtebete kartzelan, oraindik epaitu gabe.
Centro Penitenciario Madrid-2
Carretera de Meco, km 5
28.800 Alcala de Henares. Madrid.



Koldo de Markos Olarizola

1958ko abuztuaren 22an jaioa Donostia.
1981eko urtarrilaren 25ean atxilotua.
1a 18 urte kartzelan, kondenaren 3/4ak beteak.
Centro Penitenciario de Murcia
Apdo. 796
30071 Murcia.



Juan Carlos Estevez Paz, "Melli"

1970eko abuztuaren 22an jaioa Donostian.
Errefuxiatuak zegoela, 1995eko abuztuaren 10an atxilotu zuen polizia frantsesak.4 urte kartzelan.
1999an Españara entregatua. Prebentibo.
Centro Penitenciario Madrid-5
28791-Soto del Real.




Joseba Arizmendi Olarizabal, "Piliñi"

1971ko urriaren 28an Donostian jaioa.
1991ko abuztuaren 17an atxilotua.
8 urte kartzelan.
Centro Penitenciario de Badajoz
Carretera de Olivenza s/n
06071 Badajoz

i d a t z i e z a i e z u !

EUSKAL PRESOAK ETXERA !!

Joseba Arizmendi, Badajozeko presondegitik



Lau urte bete behar ditu iada Euskal preso Politikoen Kolektiboak borroka mugagabeen, 1996ko otsailean eman genion hasera borrokari, eta orduandik hamaikatxo gertakizun eman dira, hamaika borroka molde gauzatu izan ditugu gure eskubide eta aldarrikapenen aldeko borrokan.

Une larrienak noski, sakabanaketa politika kriminalak, adiskide eta burkideei eragindako osasun kalteen ondorioz, hil direnean, erahilak izan direnean bizi izan ditugu, azkena berriki joan zaigun Esteban Esteban Nieto izan dugularik.

Aintzinean nioen, hamaikatxo borroka ezberdin jorratu ditugula 1996ko otsailetik hona (aurretik ere beste makina), baina azken urte hauetako borrokak, aldarrikapen zein eskubide mailan, izan du ohiartzunik Euskal Herriko gehiengo politiko zein sozialean, eta bere defentsa ere bereganatu du ekimen eta dinamika ezberdinen bidez, hala nola manifestaldi erraldoien bidez, edo "Batera" ekimena sortuaz.

Bien bitartean, PPko gobernua haseran zuen jarrera itxitik, urrats txiki batzuk ematera behartuta ikusi zen Euskal Herriko gizartearen presioa jasangaitza zelako, presoen penintsularatzea izan zen lehen urrats hori.

Bere "borondate ona" saltzen ere saiatu zen toxikaziorako tresna diren komunikabideen bidez, ustezko askatasuna emana ziela hainbat presori eta antzerako gezurrekin, denak bere zigorraren $\frac{1}{4}$ aspaldian beteak zituzten, eta gaur egunere ahun preso dira zigorraren $\frac{1}{4}$ beteak dituztenak, eta hortxe jarraitzen dute presondegietan barreiaturik.

Orain hilabete batzu, presondegi aldaketa izan zena, 105 preso hurbilketa bezala aurkeztu zuten, eta ondotxo dakigu mugitutako preso asko urrunago direla, bikoteak aldendu dituztela edo bizi baldintza okerragoekin topo egin dutela, argi dago beraz bere burua zuritzeaz gain, beste ezertarako ez dela mugitu Gobernuak.

Bainan Euskal Preso Politikoak, Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren partaide zuzenak izan nahi dugu, eta horretarako askatasun osoa behar dugu, horregaitik, gure eskubide horiek gauzatu asmoz, borrokan jarriko ditugu gure indar guztiak.

Urrats berriak eman behar ditugu, bai presondegietan eta baita kalean ere, Euskal Herriko gizartea osatzen duen arlo edo esparru guztien laguntzaz eskabideak gauzatzeko.

Joseba Arizmendi
Badajozeko Presondegian, 1999ko
azaroan.

DE OLDARTZEN A ERAIKITZEN

Nuevos vientos hacia el cambio político y social



Herri Batasuna desde sus comienzos hace 21 años ha ido superando retos. Retos que surgían de su actividad política, y otros que se le imponían desde fuera. Sin duda alguna no ha sido un camino de rosas y el principal capital político de esta formación como decía Josu Muguruza, "estriba en su proyecto y en la capacidad de aumentar su peso social en unas condiciones de particular crudeza, por la política de acoso y derribo practicada por los diferentes gobiernos".

Y es cierto que nos hemos movido en un terreno hostil y lo seguimos haciendo. Esta política de acoso se vió claramente reflejada en el ataque frontal, el "todos contra HB" que llevó a toda la mesa nacional a la cárcel en 1998. Así se trataba de hacer mella en nuestras filas, que los planteamientos son



antidemocráticos, minoritarios y criminales, que dentro los hay dialogantes y digeribles y otros con cuernos y rabo.

Pero yerran y fracasan una y otra vez, en parte, porque infravaloran alegremente la madurez de la izquierda abertzale y su cohesión, y sobre todo porque sabemos recuperar la iniciativa y dar pasos en positivo. En estos 2 últimos años nadie duda de quién se ha movido más, y de quién ha mostrado que quiere superar este conflicto de raíces políticas.

Y esto es lo que hemos hecho en estos 4 años. "Oldartzetik" ha supuesto pasar de una postura defensiva a otra ofensiva, planteándonos como reto principal la construcción nacional y preparando el futuro sin esperar a nadie. La situación que vivimos hoy, a finales del 99, es más esperanzadora que la de



entonces, pero sin duda alguna no podemos plantarnos aquí, y debemos reconocer los escasos avances prácticos, y avanzar en ese terreno. Sí es cierto que la situación ha variado: la iniciativa de ETA, el acuerdo Lizarra-Garazi, la institución nacional "Udalbiltza", la colaboración entre partidos nacionalistas, la mayoría social por los derechos de los presos, la exitosa campaña Euskarari Bai, la huelga general por las 35 horas... pero todavía nos queda mucho camino por recorrer.

También es cierto que nuestros compañeros de viaje podrían dar pasos mas grandes, pero de nosotros dependerá que se den saltos cualitativos en este terreno. Y aquí se vislumbra nuestra responsabilidad. Nuestro papel de dinamizadores y de motor.

Y en esta coyuntura nos toca como cada 4 años revisar la estrategia de HB y después de hacer un balance político de estos cuatro años, decidir la línea política de los siguientes. Por eso se plantea el debate que hemos denominado "Eraikitzen" de manera especial, porque nos situamos en un momento histórico.

Y si tantas veces lo hemos definido así es porque estamos de nuevo en un cruce de caminos y los pasos que demos van a llevarnos o a alejarnos de la soberanía de nuestro pueblo.

El objetivo de este debate es conseguir una **participación realmente importante**, para ampliar aún más la Unidad Popular, animando a todas las organizaciones populares abiertas y libres que existen a que colaboren en el cambio del marco jurídico-político, y conseguir la transformación nacional y social de Euskal Herria.

El debate lo hemos dividido en dos fases. La primera fase será dinamizada por HB y aquí se definirán las grandes características de la Unidad Popular, que concretaremos en la segunda fase, abriendo el debate a sectores abertzales y de izquierdas, con la mayor amplitud posible. La primera fase se dará desde noviembre hasta enero. Y la segunda desde enero hasta junio. Esto no quiere decir que vamos a dejar de lado nuestro trabajo diario y nuestra planificación del año. Tendremos que saber compaginar el debate con las líneas de trabajo que hemos diseñado (Lizarragarazi, Herri Programa...).

Toda esta dinámica ocupará el año 2000, y es cierto que quizás el tema de las elecciones españolas de abril y nuestra abstención sea lo más llamativo a corto plazo, pero no lo más importante. La **territorialidad** y el **poder**

de decisión son los ejes en los que fundamentamos nuestra **supervivencia como pueblo**. Y es en este sentido que debemos dar pasos irreversibles. Pero para ello es imprescindible fortalecer y readecuar el instrumento que es Herri Batasuna al proceso político que estamos viviendo.


El desafío consiste ahora en los próximos años. Ilusionémonos y participemos del debate "Eraikitzen". Para facilitar la participación hemos organizado 3 espacios diferentes para realizar las asambleas. Uno en Herrera, otro en Harria y el tercero en Larratxo. Todos/as sabemos qué dificultades tenemos para juntar a la gente de diferentes barrios en una sola asamblea. Y con este planteamiento además de facilitar la participación queremos enriquecer el debate y extenderlo a toda la gente que conformamos la izquierda abertzale de Altza.



GAZTEOK LAN MERKATUARENTZAKO

Imanol, Altzako jarraiko kidea

21 urte besterik es ditu gazte altzatar honek, baina heldutasun nabari bat antzematen zaio gazteek gaur egun jasaten duten bizibaldintzen inguruan galdetzen diogunean. Esan digun bezala, bizitzak esnatzen zaitu eta Euskal Herrian esnatzeko aukera dextente ditugu, gure eskubideengatik guk borrokatzen ez badugu inork ez duelako egingo. Hemen duzue Jarraiko kidearekin izandako elkarrizketa.



Azken urte honetan, Altzako Jarraik Zardoya-Otis enpresaren aurkako mobilizapenak burutu ditu. Zergatik planteatu dituzue ekimen hauek?

Orain dela 3 urte Jarraien hausnarketa serio bat burutu genuen gazteok gaur egun jasaten ditugun bizibaldintzen inguruan. Bertan etorkizuna marrazten dugu. Eta azterketa horretatik ateratzen dugun ondorioa argia eta bide berean larria da. Funtsean ohartzen gara gaurtik gure etorkizunarengatik borrokatzen ez badugula sistema honek prestatzen digun tranpan eroriko gara. Eta maila honetan ere, Altzan hasten gara gai honetaz gehiago kezkatzen, eta nonbaitetik hasteko orduan hainbat enpresen azterketa egiten dugu. Horrela ohartzen gara Zardoya-Otisen bertan

hainbat eskubide zapaltzen direla. Iñigo Riveraren enpresan ETTen bitartez egiten dira kontratazioak, eta prekarietatea eta ezegonkortasuna nagusi dira. Eskubide hauen zapalketa sortzen duen egoera gordinak maila askotako erantzuleak ditu atzean, eta ekimen hauekin erantzunkizun hauek mahai gainean jarri nahi izan ditugu.

Ezin dugu inolaz ere onartu, enpresarioek, kasu honetan Iñigo Rivera aberastea gazteoi esker.

ETTak aipatu dituzu. Komentatu zergatik enpresa hauek desagertarazi behar ditugu?

ETTak, izenak dion bezala "Empresa de Trabajo Temporal" (Aldi baterako lan enpresa) dira. Eta hauek, enpresa eta lana bilatzen

duenaren artean zibilana egiten dute. ETTren bitartez kontratatua bazaude hainbat eskubide ukatzen dizkizute: ez duzu opor eskubiderik, ezta ere sindikatzeko eskubiderik, eta okerrena da zure egoera ez dela inoiz zihurra, ezta gutxiago establea. Esklabutza mota berria da, XX. mendeko ezklabutza.

Orain dela gutxi aldaketa bat eman da ETTak erregulatuz. Lehen zibilana egiteagatik ETTa %20-40 tarteko etekinarekin geratzen zen. Oraingoan, soldatak enpresak dituen kontratuetara berdindu dituzte. Eta noski, hau ez da eman kasualidadez, baizik eta borrokaren ondorioz etorri da. Ez bakarrik Euskal Herrian, baita ere estatuan. Bai Bartzelonan, Galizian nola Madriden ETTen aurkako ekimenak burutu dira.

Hala ere, ETTak ez dira bakarrik Euskal gazteriak arlo sozioekonomikoan duen arazo bakarra, ezta?

Bai horixe. ETTak dira gazteok dugun egoera larriaren exponente nagusia, baina zoritxarrez ez da bakarra. Inestabilidadea hortik hasten da. Langabezi tasa oso altua da Hego Euskal Herrian, %37 gizonentzat, eta %39 emakumeentzat. Eta lana baduzu, prekarietatean bizi zara. ETTen bitartez kontratua baduzu dakizu non zauden gaur, baina ez dakizu non egongo zaren bihar. Eta noski egoera batek edo besteak zure bizitza guztiz baldintzatzen du. Egoera honetan etxebizitza bat eskuratzea utopia bat da, eta zure independentzia pertsonalaren aukera atzeratzen da. 30 urtekin oraindik ere gurasoen etxean bizi behar koste haundiak ditu. Alokairuak ere desorbitatuak dira. Espekulazioa lege bihurtu da, eta prezio basati hoiek ez ditu inork kontrolatzen edo erregulatzen. Ikasleentzat ere, egoera jasan ezina da: matrikula, liburuak, transportea... eta guzti honek gurasoek asumitu behar dute.

Emakumeen egoera oraindik ere larriagoa da. Beti lan baldintza kaxkarretan: umeak zaintzen, etxeak garbitzen eta dena inolako kontraturik gabe.

Noski, lan baldintzak ez dute guregan, hau da, gazteengan bakarrik eragina. Baina aurrean

dugun etorkizun beltzaren aurrean borrokatzea eta antolatzea ezinbestekoa dugu.

Altzara itzuliz, nola ikusten duzu arlo sozioekonomikoan Altzako gizarteak duen osasuna?

Altza herri langilea da, eta berez kontzientzia haundiagoa izan beharko luke. Baina orain arte ez da egon esparru bat kontzientzia hori azaltzeko. Orain dela bi urte plataforma bat osatu zen horrelako gaiak jorratzeko eta esperientzi oso majoa izan zen. Hemen hasi ziren Zardoya-Otisen aurrean konzentrazioak egiten, ordu extrak sartzen zirelako besteak beste. Eta bi urte beranduago, ekimen hau gelditu zenean, guk hartu dugu erreleboa. Progresiboki jendea borroka honetan murgiltzen joan da. Hasieran gutxi batzuk ginen, orain berriz abanikoa zabaldu da eta ideologia ezberdinetako gazteak bildu gara bai mobilizazioetan bai batzarretan parte hartuz.

Eta gazteriaren kontzientzia?

Esan dudan bezala, gazteak borroka honetara hurbiltzen joan dira, eta ideologia ezberdineko jendea, azken finean arazo berdina dugulako. Egia da orain arte etsipena nagusitu dela. Egoera horren aurka ezer egiterik egongo ez balitz, eta enpresarioek bitartean "pasos de gigante" eman dituzte gure eskubideak lasai lasai zapalduz. Oraindik ere, asko falta da gazteria kontzientziatzeko. Gure

aldetik behintzat lehenengo urratsa eman dugu, buru belarri borroka honetan sartzen. Eta hori da Jarraik gazte mugimenduari egiten dion aportazio nagusia: gazte, mugi hadi eta etorkizunagatik borrokatu. Urratsez urrats lortu egin behar dugulako gure eredu sozioekonomiko propioa, justu eta solidarioa. Jarraik horren alde egiten du apostu, eta berez borroka esparru nagusia bilakatu du arlo sozioekonomikoa.

Azkenik, eta Zardoya-Otis enpresan berriro kokatuz, etorkizun hurbila nola irudikatzen duzue?

Askotan oso abstraktoa geratzen da eredu sozioekonomikoa berri baten alde borrokatzea. Baina Zardoya-Otisekin eramandako ildoarekin garbi geratu da herriz herri eta auzoz auzo sortu dezakegula modelo justoago bat. Eta borrokatzen gauzak lortzen direla. Zardoya-Otisen irekitako borrokak jadanik emaitzak eman ditu. ETTen bitartez egindako kontratuak, kontratu normalak izatera pasatu dira. Eta argi dago Iñigo Riverari egindako presioaren bidez lortu dela. Beraz, etorkizuna itxaropentsu ikusten dugu. Poliki poliki jendea ilusionatzen doa horrelako emaitzak ikusterakoan, eta benetan egoera aldatu dezakegulako. Horretarako borrokatzen jarraitu beharko dugu eta gizarte sektore guztiak inplikatu.

¡HAZTE OIR!

En las pasadas elecciones, el programa que presentamos fue fruto de diferentes contactos realizados con personas y grupos que conforman el tejido asociativo de Altza. En aquellos contactos adquirimos el compromiso de seguir con esa dinámica, y ha llegado uno de esos momentos: la elaboración de los presupuestos municipales para el año 2000. De nuevo es nuestra intención marcar entre todos y todas las prioridades de Altza para el 2000.

Beraz, ikusten dituzun beharrak eta dituzun ekarpenak helerazi iezaizkiguzu. HITZA HARTU!! Cualquier sugerencia o aportación hazla llegar a cualquier persona de EH, o si no, déjala en Txalaka Elkarte de Larratxo.

Urbanismo/Hirigintza

- 2ª fase del polideportivo
- Aparcamiento de Larratxo
- ...

Kultura/Euskara

- Altzako kultur ondarea zaindu/sustatzeko aurrekontua.
- Euskarazko eskeintza kulturalak
- ...

Juventud/Gazteria

- Partida presupuestaria para la reapertura del Gazteleku de Roteta
- Cesión de equipamiento y partida presupuestaria para poner en marcha el Gaztetxe.
- ...

Educación/Hezkuntza

- Partida para impulsar la matriculación en el modelo D.
- Aumento de las ayudas para las APAs.
- ...

Kirolak/Deportes


- Arrobitxulon kirolgunea egiteko partida presupuestaria.
- Bidegorri sarea.
- ...

Enplegua/Bienestar Social

- Udaletxeko ordu extrak.
- Udaletxean 32 ordutako lanaldia.
- Bonobús para desempleados y jóvenes.
- ...

Mujer/Emakumea

- Partida para eliminar o mejorar las zonas de riesgo para la población femenina
- Programas para impulsar la participación social de las mujeres.
- ...



Altzako

EH

Euskal Herriak